

Erdera batuan naharo eta euskara batuari palo!

Iñaki Linazasoro adiskidearentzat gutun ideki gisa dijoaz honako ohar hauek:

Irakurri diat: 1997ko ekainaren 11an *El Diario Vasco*-ren azken orrialdean "Dudoso éxito" izenburuz agertu huan artikulutxo zelebrea. Hire zelebrekeri horiek, batzutan negargarriak izanarren, irakurtzen dizkiat. Baina, tamalez, oraindik ez duk ikasi etxeko trapu zaharrak etxebarnear garbitzen. Nonbait, nahiago gazteleraz eta zabalkunde handidun egunkari batean lau haizetara zabaltzea. Baina, zalantzak jarriarren, ez pentsa aurkikuntza berriak egin ditukenik.

Euskara batuak ezer ikustekorik ba ote dik, "ez du pena merezi" eta "nere zorionak dira" esakuntzekin? Euskara baturako arauetan non aurkitu duk hik esakuntza horiek erabilgarriak direnik?

Euskaldun berriak ez ezik zaharragoek ere erabilia duk Gipuzkoako Beteritik zabalduz doan lehen esakuntza hori. Eta hortaz zerbait idatzin *Egan* aldizkari honen Adabakiak sailean, 1984. urteko 3-4 zenbakia-
ren 143-144 orrialdeetan. Bertan aipatzen nuen Santio erromes itxurakoa hor duk hurbil egunkari horretan, bere ustez herri hizkuntzaren aldeko izanarren, erdera batuan idazten duena. Baina hizkuntzaren gutiengo mailak ez ezagutzeak ez dik zer ikusirik batuarekin edo edozein euskalki-
rekin.

Duela gutxi, "perla" bitxi horietako bat entzun nian hire ahotik, Euskal Telebistan, "Aire, aire" sailean: "bialtzen didate", "bialtzen naute" ren orde-
dez. Bapo! Euskaldun gurasoek haurtzaroan irakasten zigutenetakoa huen hori bereiztea, transitibo eta intransitibo nola ziren adieraziz: "ikusi dit" eta "ikusi nau" ez direlako gauza bera. Hire "Perla" horregatik esan nezakek: Zozoak beleari, ipur beltz.

Ez etorri orain ez direnak esaten. Euskara batuan "Txartel" jatorra "tiketa" gatik trukatu dela? Hik jarri beharko dituk agiriak lekuko. Ibon Sarasolak argitaratu berri duen *Euskal hiztegia* (1996) deritzan horretan, "txartel" bazetorrek baina "tiketa" rik ez. Hala ere, esan behar diat, Bizkai aldean zein Gipuzkoan, Bizkaiarekin muga egiten duten herri inguruetan, biak erabiltzen direla, baina elkarregandik bereizturik. Guretzat,

hautzarotik bertatik (eta gure gurasoentzat ere bai noski), gauza bat duk "txartela" eta beste gauza bat "ticketa". Biak dituk eratorriak. Beraz, hik diokan "castiza palabra txartel" horren jatortasuna norainokoa den ere zalantzarria duk.

Ez diat ezer esango "nere zorionak dira" esakuntzaz, haurrekin burubat ez egiteko.

Euskara batua ere euskalkietatik hornitzen dela ez badakik, ez diat ezer esango "gazna", "eskualduna" eta "erran" hitzagatik. Baina ez uste hiru hitzok mugazandik bakarrik erabiltzen direnik. Udara, ohi bezala, Hondarribian igarotzean on izango zaik Bortsirietatik Baztan aldera bidaiaren bat egitea. Laguntzeko prest naukak, heuk entzun ditzan "gazna" zein "erran". Oroi Bortsiriak direla eta ez Bostiriak.

Kulturan eta hizkuntzaren jakintzan denok dizkiagu gure mugak eta gure hutsuneak. Inork ez zekiagu denetik. Horregatik, ez uste izan norberarena dela euskararik hoberena.

Euskaltzaindiak, batuarekin, hizkuntza idatziaren estandard bat eskaitzen dik, baina lekuan lekuko hizkerarik ez dik ukatzen. Euskalki guziak dituk ikergai eta aldi berean batuaren iturri. Herriaren hizkuntza bihiak gauza asko dik oraindik batasunarako erakargarri. Eta gorago joan nahi duenak, estandard edo arau horretan oinarriturik, zenbait era jator eta esaldi erabili ezinik ez dik, berak hala uste badik.

Akademikoek uste izan zutela H sartzearaz Bidasoa harandikoengana hurbiltzen zirela? Ez duk hori egia osoa, bestela Enrike Zubiri "Manezaundi" luzaidearra irakur. Hark beharrezkotzat zian bere herrian H hori ahoskatzen zutelako. Eta, zer esan Erronkarierazko "kemen", "kura", "kori", edo Saraitzuko "geben", "gura", "gori" eta abarregatik? Zer dela uste duk Plaentzi (Soraluze) inguruan erabiltzen den "bigar"?

Euskal Herri honetan arte zaletasuna duen batek nola bazter ditzakeek hain gurea zaigun "Ospitale-pia", XII. mendeko eliza erromaniko bikain horren izena? Eta nork uka André Ospital euskal idazleari bere deitura jatorra? Gainera mugazemendiko ostatuak zer direla uste duk? Ez ote hekien erator jatorri bera dutela *ostatu* eta *ospitaleak*? Eta Bizkai-Gipuzkoetan non irakurri duk hik "ostatua" H-rekin? Gainera, ez ote hekien Italian ere "ospitale" dela?

Handiak esaten hasiezkerok, besteok ere ez gaituk motelak. Gazteleraz, Hospital, Hotel zein Hostal adierazteko, 'H' iragarki hori erabiltzeagatik, istripu larrietan inor eraman ote ditek Hotel edo Hostal-era, Hospital-era eraman beharrean? Hala ere, H, ospitalearentzat internazionala omen. Txinan ere bai?

Hor ba, Hire artikulutxoak irakurtzen duenaren aurrean, ez zekiat nor uzten dukan lotsagarri, euskara batua ala heure burua.

Gainera, zergatik erabiltzen duk, gazteleraz mutua den H hori, eta aldi berean euskarari ukatu? Ez ahal hekian André Martinet hizkuntzalariak

euskararen erabiltzen den H delakoaz zer zioen? Euskarak oso bereak dituen hoskera jatorren artekotzat jotzen dik H-ren erabilera hori. Eta, Martinet-en fonetikazko lege horiek, Europaren mendebaldean behintzat, Unibertsitate guzietan ikasgai erabiltzen zituztek.

Lagun zaharrak garen aldetik, gai hontaz kontseiluren bat eskatu bazidan, bion onerako izango huan, eta orain ez nian artikulu hau idatzi beharrik. Euskararen alde hainbeste egin dugunok ez diagu elkarren lepora irainak metatu beharrik.

Horiek gora-behera, nik ere opa diat, mugazemendikoentzat *ondo bizi*, baina mugazandikoentzat, arren, ez ordea, *izan ontza*, baizik, *izan ontsa*.

Hauxe dut hauxe!: Erdera batuan naharo eta euskara batuari palol! Hori bai dela: kanpo larrosa, etxe kardo.

* * *

Argitasun bidez, beharrezkoa iruditzen zait irakurleari begira zenbait ohar gehitzea:

Euskaltzaindiari bere sorkuntza garaitik arategiak eskatzen zion eginkizunetariko bat betetze asmoz bildu ginen 1968an Arantzazun. Baina esan beharra dut, neurri batean bultzatuak izan ginela. Gure historian inoiz baino idazle gahiago genuen eta aldi berean ikastolak ere bai. Lehenago, Azkue zenaren iritziz, nekeza omen batasun bidea lortzea eskolarik gabe eta idazleak urri zirenez. Baina gauzak aldatu ziren, idazkeraren batasun eskariak non-nahitik zetozten eta, arauak emateko, une hura aukerakoa iruditu zitzaigun. Gaur egun ordea, inork ez du zalantzarik, hezkuntzak daroan bidea ikusirik, eskerrak bide urratse hari, lasai esan genezake gauzak hobeto aurreratu ahal izan direla. Bestalde, gezurra badirudi ere, H haren auziak gainerako guziari bidea erraztu zion. Letra horrekin itsuturik, bestelako erabakiak lauso artean bezala gainditu bait dira. Orduko hitzaldi, elkarrizketa eta erabakiak Euskaltzaindiaren *Euskera* XIII, 1968 eta XVI, 1971ko agerkarietan jasoak datoz. Beharrezko lehen urratsak emanak ziren. Handik hamar urtera Bergaran, erabilera idatzia estadistikoki aztertuz, erabaki zehatzagoak hartu ziren, ikus *Euskera*, XXIII, 1978, 2. alea. Eta orduan markaturiko bidearen ondoreak guzian begi aurrean ditugu.

Gertakariak eta arauak zuzen jakin nahi dituenak, aipatu ditudan *Euskera* agerkari horietara eta ondorengoetara jo beharko du, uste okerrik izan ez dezan.

Juan San Martin